

ARAUA ALDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA, UREZ HORNITZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEARI DAGOZKION TASAK ARAUTZEKO ZERGA ORDENANTZA DELA-ETA

EH BILDU udal taldeak araua honela aldatzea proposatzen du, zerga-progresibitateko irizpideak txertatzeko, 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 9. artikuluan jasotakoaren arabera, eta honako hobari hau gehitzen du:

Ordenantzaren 8. artikuluan 6. puntu bat gehitzea:

6.- Etxebizitzetako etxeko erabileraren modalitatean, honako hobari hauek eskatu ahal izango dituzte subjektu pasiboek, baldin eta bizikidetza-unitateak ez baditu gairatzen urteko diru-sarreraren muga hauek:

Bizikidetza- unitatea convivencia	de	Hobaria		
		% 75	% 55	% 35
1		<17.460	17.460 - 19.840	19.841 – 23.810
2		<22.860	22.860 - 25.870	25.871 – 31.110
3		<24.920	24.920 – 28.410	28.411 – 34.130
4 edo gehiago		<26.830	26.830 – 30.640	30.641 – 36.670

Hobari horren onuradun izateko, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiek etxebizitzan erroldatuta egon beharko dute eskaera aurkeztu aurretik.

Bizikidetza-unitatetzat hartuko da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikuluan araututakoa.

Urteko diru-sarreratzat hartuko da bizikidetza-unitateko kide guztien PFEZaren aitortpenaren zerga-oinarria, baldin eta aurkezteko epean badago, edo aurkeztutako azken PFEZ aitortpena, aitortpen hori egiteko epea irekita ez badago. PFEZaren aitortpena aurkeztu ez badute, aurreko urteko etekin gordinak hartuko dira kontuan (nominak, ondare-sarrerak...). Lan-bizitzaren dokumentua ere aurkeztu beharko da.

Hobariaz baliatzeko, Udalak aldeztu aurretik onartu beharko du hori, eta ebatzpena ematen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Aldizkako likidazioen kasuan, hurrengo aldi osotik aurrera izango ditu ondorioak.

Subjektu pasibo onuradunek nahitaez jakinarazi beharko dute hobaria jasotzeko baldintzetan eragina duen edozein aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridiko. Hala ere, Udalak urtero egiaztatu ahal izango du onuradunek horretarako baldintzak behar bezala betetzen dituztela.

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
[Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus](mailto:eh_bildu@donostia.eus) -- www.donostia.ehildu.eus -

Bere egoera aldatu delako, subjektu pasiboak hobaria jasotzeko onuradun izateari uzten badio, edo hari dagokion hobari-portzentajea aldatzen bada, ebazpenaren egunetik aurrera jarriko da indarrean egoera berria.

Donostian, 2025ko abuztuaren 7an.

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldeko bozeramailea